

## **1. JARDUERA-GAKOAK**

- **PRODUKZIOA:** Enbultorioak egiteko inprimagailuak beharko ditugu, hasieran bi inprimagailu erosiko ditugu eta denbora pasa ahala, eskaera handitzean inprimagailu gehiago erosiko genituzke. Hortaz gain, Kraft motako papera erabiliko dugu. Paper hau oso erresistentea da eta ingurunearekin konpromiso bat izan nahi dugunez %100 birziklagarria izango da.
- **ARAZOAK KONPONTZEA:** Arazoren bat egongo balitz, bankuko kontu korrontean diru kantitate jakin bat izango dugu edozein kasurako. Adibidez, makinaren bat matxuratzen bada, paperaren eskaria berandu iristen baldin bazaigu, etab.
- **PLATAFORMAKO ETA SAREKO JARDUERAK:** Sare sozialei dagokienez, instagrameko kontua eta google-en gure webgune propioa izango dugu gure produktuak saltzeko.